



ARAUTEGIA 2012

FUTBOL 11 (Errendimendurako ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO IV ESKOLARTEKO KIROI JOKOAK ERRENDIMENDUARI EKITEKO IBILBIDEAN antolatuko ditu, Infantil lehen urteko txapelketa Zubietan (Gipuzkoa) eta Infantil bigarren mailako txapelketa Bizkaian 2012ko ekainaren 2 eta 3an. Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Hiru bat sistemaren bidez bi jardunalditan jokatu da.

Mailak:

Infantilak: 1998 eta 1999an jaioetako mutilak.

2. EKIPOEN OSAKETA

Lurralde bakoitzeko hiru talde parte hartuko dute beraien lurraldeetako txapelketen lehen irabazleak.

Jokalari guztiak eskolarteko lizentzia aurkeztu beharko dute txapelketan parte hartzeko, ikasturtean zehar talde berean jokatu behar izan dute.

Taldeak gehienez 25 jokalariz osatuta izando dira, hauez gain . delegatu bat eta entrenatzailea izan daitezke.

Aktan gehienez 22 eta 13 gutxienez jokolari agertuko dira.

Partida bakoitzean aktan izena emandako jokolari guztiak zati bana jokatu beharko dute gutxienez.



Ekipo bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bateratasunik gerta ez dadin.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Partidek hogeita hamabost minutuko iraupenak izando dute. 17,5eko bi zatitan banatuta, bost minutuko atsedenaldi batekin.

4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

Penalti-puntutik hiru jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalaria txandakatuz. Hiru jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegín eta bestek sartu arte.

Hurrengo jardunaldiko eta txapelketako postuak zehazteko irizpide hauek jarraituko dira:

- 1.1.- Egindako eta jasotako gol kopuru handiaren diferentziaz, txapelketako partida guztiak kontuan izanda.
- 1.2.- Sartutako gol kopuruaren arabera, txapelketako partida guztiak kontuan izanda.
- 1.3.- Jokatutako bi taldeen arteko emaitzen arabera.
- 1.4.- Berdindutako taldeen arteko penalti jaurtiketen emaitzaren arabera.
- 1.5.- penaltietako gol ezberdintasunagatik.
- 1.6.- Jaurtitako penalti kopuru gutxienagatik.
- 1.7.- Zozketaren bidez.

5. BALOIA

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.



6. FUTBOL ZELAIA

Zelai jokoak programatan azaldutakoaren arabera izango dira.

7. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako ekipoei.

8. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

9. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 2012ko urtarrilaren 17ko Agindua, 2012ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXI. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2012ko urtarrilaren 31ko Ebazpena, 2012ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXI. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.